

Izaro Bustinduy Antxustegieta

E maila • **Aipamena**



Nire izena Izaro Bustinduy Antxustegietxarte da, 11 urte ditut eta 2010eko uztailaren 18an jaio nintzen.

Neba bakarra dut eta gure gurasoekin lasai bizi naiz Beasainen.

Murumendi eskolara noa eta eskolez kanpo, eskubaloia, eskola kirola eta dantza praktikatzen ditut.

Gehien gustuko dudana, lagunekin egotea, kirola egitea eta noizbehinka, ipuinak idaztea da.

Ilusio handia egin dit nire lanak sarituak izatea.

Mila esker.

EZ DUT EGUZKIA IZAN NAHI!!!

Kaixo irakurle maiteak!!! Ni eguzkia naiz, bai bai, benetako eguzkia naiz, baina arazo bat dut, seguruenik galdetzen ari zarete: ze arazo? Ba... Nik ez dudala eguzkia izan nahi. Zergatik? Ba, oso,oso,oso,oso baina oso aspergarria delako.

Lagunak baditut, asko gainera baina... Beti berdinak dira eta gainera beti gauza berdinez hitz egiten dute: UNIBERTSOAZ!!! Badirudi ez dagoela beste gairen bat horretaz hitz egiteko. Puf! A ze desesperazioa! Nekatuta nago, baina ezin dut ezer egin. Gainera, ezin da inor nire ondora etorri bestela erre egiten delako. Eta nola ia beti triste nagoen, ba bueno, nitaz kezkatzen dira eta galderak egiten hasten dira: -Ondo zaude eguzki?-edo-Oraingoan ere triste! Zer gertatzen zaizu?- Eta horrelako gauzak. Baina pixkanaka-pixkanaka ohitzen ari naiz. Eta zuekin hitz egin eta gero, askoz hobeto sentitzen naiz, mila esker!

Baina oraindik ez itxi liburuak, zeren eta ez dut bukatu. Jejeje. Zuen planetari buruz pixka bat hitz egingo dizuet. Prest zaudete? Bai, orduan hasi egingo naiz. Lurra oso planeta ona, barregarria, majoa eta burugogorra da, baina azkenaldian beti dago gaixorik, ez da lehen zen planeta berdina, aldatu egin da. Zuek gizakiok gehiegi kutsatzen ari zaretelako, aldaketa klimatikoarengatik eta horrelako gauzengatik. Askok sufritzen ari da! Sukarra edukitzen du, ez du ezer egiteko gogorik, eta horrela jarraitzen baduzue ez dakit zer gertatuko zaion baina seguruenik ez da zerbait ona izango, eta ziur nago zuek ez duzuela nahi berari ezer txarra gertatzea, ezta? Horrela bada egin zerbait mesedez, berak ez du errurik! Berak nahi duen gauza bakarra da zuek, gizakiok, ondo bizitzea eta ez diozue oso erraz jartzen zeren eta bera gaizki badago zuek ere bai, ulertzen duzue? Horrela jarraitzen baduzue ez da ona izango ez beretzat ezta zuentzat ere. Orduan espero dut hemendik aurrera hobeto zaintzea, e?

PROSA

Bueno eta agurtu baino lehen gauza bat esan nahi dizuet. Mila esker! Entzuteagatik bueno irakurtzeagatik hobeto esanda eta hemendik aurrera pozik ibiltzen saiatuko naiz. Bestela, nire lagun batek esan zidan bezala: Aguantina pirulina!!!

Agur!!! Muxu! Eguzkia